**Udal Zigilua / Sello Ayuntamiento (1, guztira 1)**
Ayuntamiento de Lakuntza
Sinaduraren data: 18/09/2024
HASH: 38bda7409960e64770c30ee373317d140d

| **2024KO MAIATZAREN 23KO BILERAREN AKTA** | ***ACTA DE LA SESIÓN DEL 23 DE MAYO DE 2024*** |
|---|---|
| **Organoa:** Udalbatza.<br>**Batzarra:** Ohikoa.<br>**Deialdia:** Lehenengoa.<br>**Eguna:** 2024.05.23<br>**Ordua:** 18:30.<br>**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia.<br><br>**Bertaratuak:**<br>**Alkatea:** Oihane Uribeetxebarria Garmendia<br><br>**Zinegotziak:**<br>Rita Torrico Muniz<br>Sergio Goicoetxea Bergera<br>Eba Leatxe Itoiz<br>Miriam Mendikute Garate<br>Asier Gartziandia Ormaetxea<br><br>**Bertaratu ez direnak:**<br>Patxi X. Razkin Sagastibeltza<br><br>**Idazkaria:** Maria Barkos Berruezo. | ***Órgano:*** *Pleno.*<br>***Sesión:*** *Ordinaria.*<br>***Convocatoria:*** *Primera.*<br>***Día:*** *23.05.2024*<br>***Hora:*** *18:30.*<br>***Lugar:*** *Salón de Plenos del Ayuntamiento.*<br><br>***Asistentes:***<br>***Alcaldesa:*** *Oihane Uribeetxebarria Garmendia*<br><br>***Concejales:***<br>*Rita Torrico Muniz*<br>*Sergio Goicoetxea Bergera*<br>*Eba Leatxe Itoiz*<br>*Miriam Mendikute Garate*<br>*Asier Gartziandia Ormaetxea*<br><br>***No Asisten:***<br>*Patxi X. Razkin Sagastibeltza*<br><br>***Secretaria:*** *Maria Barkos Berruezo.* |
| **Aztertu beharreko gaiak:**<br><br>**1.- Azkeneko aktaren onespena.**<br>**2.- 586 partzelan xehetasun azterlana, behin betiko onespena. Sustatzailea: Iker Razkin Burillo.**<br>**3.- 2024ko aurrekontuaren 3. aldaketa, hasierako onespena.**<br>**4.- Arreta goiztiarreko zerbitzua emateko Nafarroako Autonomia eta Pertsonen Garapenerako Agentziaren eta NUKFren arteko lankidetza-hitzarmenari atxikitzea.**<br>**5.- Udal igerilekuen prezio publikoak berrikustea.**<br>**6.- Plazako Estalpearen proiektua esleitzeko plegua.**<br>**7.- Kartel Lehiaketa: baldintzak.**<br>**8.- Alkatearen ebazpenak.**<br>**9.- Fakturak.**<br>**10.- Eskari eta Galderak.** | ***Asuntos a tratar:***<br><br>***1.- Aprobación Acta sesión anterior.***<br>***2.- Aprobación definitiva estudio de detalle, parcela 586. Promotor: Iker Razkin Burillo.***<br>***3.- Aprobación inicial 3ª modificación presupuestos 2024.***<br>***4.- Adhesión al convenio de colaboración entre la Agencia Navarra de Autonomía y Desarrollo de las Personas y la FNMC para la prestación del servicio de atención temprana.***<br>***5.- Revisión de los precios públicos de las piscinas municipales***<br>***6.- Pliego para la adjudicación del proyecto de la Cubierta de la Plaza.***<br>***7.- Concurso Carteles: bases.***<br>***8.- Resoluciones Alcaldía.***<br>***9.- Facturas.***<br>***10.- Ruegos y preguntas.*** |

Baliozkotze Kod.: 4JSR5EEZJNLYT4H6YGHA36TPD
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 5

| | |
|---|---|
| **1.- AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**<br><br>Aurreko ohiko bilkura 2024ko apirilaren 18an; eta honekin batera doa bilkura honen aktaren zirriborroa.<br><br>Bilkura hastean, bilkuraren buru egiten duenak bertaratu diren korporazioko kideei galdetuko die ea oharrik egin nahi dioten deialdi honekin batera doan aktaren zirriborroari, hala ezartzen baitu Toki Entitateen Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiko 91. artikuluarekin bat (araudi hori 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen).<br><br>Hori horrela, honakoa ONARTU DA:<br><br>Lehenengoa.- 2024ko apirilaren 18ko ohiko bilkurako akta onestea.<br><br>Bigarrena.- Onetsitako akta Akten Liburuan transkribitzea, hala egin behar dela ezartzen baitu, bai eta nola egin behar den ere, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 323. artikuluak. | ***1.- APROBACION ACTA SESION ANTERIOR**.*<br><br>*Se adjunta borrador de acta de la sesión ordinaria celebrada el 18 de abril de 2024.*<br><br>*Al comienzo de la sesión, quien la preside pregunta a los miembros de la Corporación que se encuentren presentes si desean formular observaciones al borrador de acta que se ha adjuntado a esta convocatoria, tal y como dispone el artículo 91 del Reglamento de Organización y Funcionamiento (Real Decreto 2568/1986).*<br><br>*Visto lo anterior, SE ACUERDA:*<br><br>*Primero.- Aprobar el acta de la sesión ordinaria del 18 de abril de 2024.*<br><br>*Segundo.- Proceder a la transcripción del acta aprobada en el Libro de Actas, de conformidad con el artículo 323 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de Administración Local de Navarra, y en el modo en que dicho precepto establece* |
| **2.- 586 partzelan xehetasun azterlana, behin betiko onespena. Sustatzailea: Iker Razkin Burillo.**<br><br>Jendaurrean jartzeko epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez denez, Lakuntzako 2. poligonoko 586 lurzatiaren eremuan xehetasun-azterlana behin betiko onartzea erabaki da, Iker Razkin Burillok sustatua; eta Izaskun Beunza Azazeta eta Emilio Barrero Hidalgo arkitektoek idatzia.<br><br>Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 79.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, behin betiko onespenaren erabakia argitaratzen da. | ***2.- Aprobación definitiva estudio de detalle, parcela 586. Promotor: Iker Razkin Burillo.***<br><br>*Finalizado el periodo de exposición pública sin que se hayan presentado alegaciones, se acuerda la aprobación definitiva del Estudio de Detalle en el ámbito de la parcela 586 del polígono 2 de Lakuntza, promovido por Iker Razkin Burillo; redactado por los arquitectos Izaskun Beunza Azazeta y Emilio Barrero Hidalgo.*<br><br>*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 79.1 Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, se procede a la publicación de dicho acuerdo.* |

Baliozkotze Kod.: 4JSR5EEZJNLYT4H6YGHA36TPD
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 5

| | |
|---|---|
| **3.- 2024ko aurrekontuaren 3. aldaketa, hasierako onespena.**<br><br>Ezohiko kredituko 2024ko aurrekontuaren 3. aldaketaren proposamena onartzea erabaki da. Aldaketak kreditu berriak aitortzea dakar, guztira 33.500,00 euro.<br><br>Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz. | ***3.- Aprobación inicial 3ª modificación presupuestos 2024.***<br><br>*Se acuerda aprobar la propuesta de 3ª modificación del presupuesto 2024, de crédito extraordinario. La modificación supone el reconocimiento de créditos nuevos por total de 33.500,00 euros.*<br><br>*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 33 del Decreto Foral 270/1998, de 21 de septiembre, que desarrolla la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra, el expediente se expondrá en Secretaría durante quince días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.* |
| **4.- Arreta goiztiarreko zerbitzua emateko Nafarroako Autonomia eta Pertsonen Garapenerako Agentziaren eta NUKFren arteko lankidetza-hitzarmenari atxikitzea.**<br><br>Federazioko Batzorde Betearazleak otsailaren 13an egindako bileran, beste hitzarmen bat izenpetzea adostu zuen, egungoaren antzeko baldintzetan. Horren bidez, arreta goiztiarreko esku-hartzeak eta baliabideak arreta horren beharra duten zero eta hiru urte bitarteko haurren eta haien familien eskura jarri nahi dira, hitzarmenarekin bat egiten duten udalek lokalak lagatuz zerbitzu hori emateko.<br><br>Sinatutako hitzarmena ikusita, honako hau erabaki da:<br>1.- Lakuntzako Udala sinatutako hitzarmenari atxikitzea.<br>2.- Erabakiaren berri ematea NUKFri, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan. | ***4.- Adhesión al convenio de colaboración entre la Agencia Navarra de Autonomía y Desarrollo de las Personas y la FNMC para la prestación del servicio de atención temprana.***<br><br>*La Comisión Ejecutiva de la federación en sesión celebrada el 13 de febrero, aprobó la firma de un nuevo convenio, en términos similares al que ya existe, mediante el cual se procura acercar las intervenciones y los recursos de atención temprana a los niños y niñas de cero a tres años que precisan esta atención y a sus familias, mediante la disposición por los ayuntamientos que se adhieren al convenio de locales para la prestación del servicio.*<br><br>*Visto el convenio suscrito, se acuerda:*<br>*1º.- La adhesión del Ayuntamiento de Lakuntza al convenio firmado.*<br>*2º.- Dar traslado del acuerdo a la FNMC, para su conocimiento y efectos oportunos.* |

Baliozkotze Kod.: 4JSR5EEZJNLYT4H6YGHA36TPD
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 5

| | |
|---|---|
| **5.- Udal igerilekuen prezio publikoak berrikustea.**<br><br>Udal igerilekuetako sarreraren prezio publikoak berrikustea erabaki da 2024. denboraldirako:<br><br>ADINA ERROLDA. EZ ERROLDA<br>0-4 0 € 0 €<br>5-10 19 € 27 €<br>11-16 27 € 36 €<br>17-64 45 € 57 €<br>65 --- 27 € 36 €<br><br>Familia ugariak eta langabetuak: - %20 | ***5.- Revisión de los precios públicos de las piscinas municipales***<br><br>*Se acuerda la revisión de precios públicos de la entrada a las piscinas municipales para la temporada 2024:*<br><br>*EDAD EMPADRONADAS NO EMPA.*<br>*0-4 0 € 0 €*<br>*5-10 19 € 27 €*<br>*11-16 27 € 36 €*<br>*17-64 45 € 57 €*<br>*65 --- 27 € 36 €*<br><br>*Familia numerosa y personas desempleadas: - 20%* |
| **6.- Plazako Estalpearen proiektua esleitzeko plegua.**<br><br>Lakuntzako plaza estaltzeko exekuzio proiektuan jasotako obrak esleitzeko egindako plegua onartu da.<br>Lizitazioaren prezioa: 180.456,58 euro, BEZa barne.<br>Prozedura: irekia. | ***6.- Pliego para la adjudicación del proyecto de la Cubierta de la Plaza.***<br><br>*Se aprueba el pliego elaborado para la adjudicación de las obras contenidas en el Proyecto de Ejecución para la cubrición de la plaza de Lakuntza.*<br>*Precio de licitación: 180.456,58 euros, IVA incluido.*<br>*Procedimiento: abierto.* |
| **7.- Kartel Lehiaketa: baldintzak.**<br><br>2024ko abuztuko jaiak iragartzeko kartel lehiaketaren deialdia egiteko oinarriak onartu dira. | ***7.- Concurso Carteles: bases.***<br><br>*Se aprueban las bases para la convocatoria del concurso de carteles para el anuncio de las fiestas de agosto 2024.* |
| **6.- Alkatearen ebazpenak**<br><br>Toki Entitateen Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiko 42. artikuluarekin bat (araudi hori 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), Osoko Bilkurari ondoko ebazpenen berri ematen zaio: 2024/22. ebazpenetik, apirilaren 18koa, 2024/30. ebazpenera, maiatzaren 13koa; bitartekoak, biak barne. | ***6.- Resoluciones Alcaldía.***<br><br>*De conformidad con lo dispuesto en el artículo 42 del Reglamento de Organización y funcionamiento (Real Decreto 2568/1986), se da cuenta al pleno de las siguientes resoluciones dictadas por alcaldía: desde la resolución nº 2024/22, de 18 de abril; a la resolución nº 2024/30 de 13 de mayo; ambas incluidas.* |
| **7.- Fakturak.**<br><br>Maiatzean jaso diren fakturen zerrenda onartu da.<br>Guztira 20.549,82 euro izan da. | ***7.- Facturas.***<br><br>*Se aprueba la relación de facturas recibidas el mes de mayo. Asciende a 20.549,82 euros.* |

Baliozkotze Kod.: 4JSR5EEZJNLYT4H6YGHA36TPD
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 5

| **8.- Eskari eta Galderak.** | ***8.- Ruegos y preguntas.*** |
|---|---|
| Ez dira egin | *No se formulan* |
| Eta besterik gabe, 19:15ean, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatua; eta Alkateak sinatua | *Y no habiendo más asuntos que tratar y siendo las 19:15 horas se levanta la sesión de la que se extiende la presente acta que conforme la firma la Alcaldesa y la Secretaria, que lo certifica* |

Baliozkotze Kod.: 4JSR5EEZJNLYT4H6YGHA36TPD
Egiaztapena: https://lakuntza.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 5